

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak, Aniztasun Funtzionala duten pertsonentzako **antzerki eta dantza tailerra** sortu du, **beste hainbat ekintzekin batera**. Enpresa sortzearen ideia, merkatuaren azterketa baten ondoren sortu zitzaigun. Bertan, ikusi genuen gizartean gabezia handi bat zegoela, eta pertsona hauei zehazki zuzendutako tailer ludikoen gabezia bat zegoela. Herri askotan, zenbait tailer antolatu izan dira egun askeetan, eta hiri handietan horrelako tailerrak ere egon ohi dira, baina Goierriko eskualdean zehazki, ez dago gizartearen behar honi erantzuten dion enpresa edota elkarterik.

Azkenean, elkarte askok ez dakite **integrazioa eta inklusioa** ezberdintzen, eta askotan inkontzienteki pertsona hauek nolabait baztertu egiten dituzte beraien ekintzetan, batzuek ekintza osotasunean egiten dutelako eta Aniztasun Funtzionala dutenentzat berriz egokitu egiten dutelako ekintza. Horrela, pertsona hauei, beraien ahulguneak nabarmendu egiten dizkiete eta beraien konfidantza eta autoestimua gutxitzeko arriskua sor daiteke.



Gure enpresan aldiz, hori guztia kontuan hartzen dugu, eta inklusibitatea osotasunean bultzatzen dugu. Horretarako, gure bezeroen ahulgune eta indarguneak identifikatu egingo ditugu eta ondoren dinamikak norberaren garapenera egokituko ditugu eta elkarrekin ekintza bera egingo dugu. Hau da, dinamika bat guztientzat berdina izan arren, honakoa sortzerakoan, bakoitzaren garapena kontuan hartuko da.

Aipatu behar da, gure helburu nagusia, Aniztasun Funtzionala duten pertsonak gainontzeko gizakiok bezala ekintzak egiteko aukera ematea da, betiere beraien baldintzetara egokituz. Orokorrean, zerbitzu honen funtsa, ekintza horiek eginez ondo pasatzea da, **plazer sentsazioa** izatea eta urte amaierako emanaldia prestatzea eta antzeztea.

Beraz, esan bezala, gure bezero nagusiak, **Aniztasun Funtzionala** duten pertsonak eta haien familiak izango dira, non bakoitzaren beharretara egokituko garen eta horri erantzuten saiatuko garen hainbat profesionalen laguntzaz.